



# ERRENDERIKO «ORERETA» IKASTOLAREN SORRERA ETA LENENGO PAUSOAK

Pasiak pasa, gañean ditugu oraintxe gure Malen jayak eta auekin batera ain gogozko degun «Oarso» aldizkaria. Urtero bezela berau osatzeko nolabaitere zeozer idazten sayatzen gearnori GAYA ipintzen digute eta aurtengo alerako auxe aukeratu dute. «La Enseñanza en Euzkadi» auda: antziñatik asita urteen buruan gure Euskalerriko maisu eta eskolatze edo ikaspi-deak aztertu, adierazi eta argitzea.

Gai neurtu-ezin izugarriya eta zer esanik ez duan garrantziari begiratzen badiogu. Ilusi besterik ez dago aspaldi ontan oneri buruz legeak egiterakoan, zer elburu edo nola bear duan erabakitzeke darabilzkiten eztabaida eta buruausteak.

Legeak egin bear dituanarentzat utzita, iruditzen zait Gayak, Ikastolak barru-barruan eta erdiz-erdi artzen dituala. Beraz gure Erriko Orereta izenarekin sortu eta aurrera eramateko zerbaitetan alegindu giñan ezkerro, berari buruz dakizkidanak edo gogoan dauzkadanak beintzat aldedan garbien agertzen saiatuko naiz.

Lenago ordea, bidezkoa dala derizkiot, gu lan ontan asi baño ogeitamar urte inguru aurretik 1932-1936 garren urtetan, Donosti eta beste erri geiagotan ere Maria Dolores Agirre eta batez ere Elbira Zipitriak kristau sinismenean oñarritu eta eus-

kera eta euskeraz erakusteko sortutako Ikastolak eta jarri zituzten elburuak, gure erri ontan ere jarraitzalleak izan zituztela, adibidez: «Hijas de la Cruz» izeneko monjak eta Ayerbe aizpak Dorotea eta Faustina maestrak zeuzkaten eskoletan euskaldun taldeak sortu eta jarriaz.

Au aitortu ondoren, datorren Urte Berri aldera beteko dira ogei urte, lenengo billera, erdi izkutuan noski, egin genduala. Sobrare urte batzuk junda izan arren, gorago aipatu ditudan Ikastolari buruz egin dako lan eta jarri zituzten oñarri eta elburuak aztu gabe zeuzkatenak bazirala oraindik eta jakin gendun inguruko erri batzuetan iriki zituztela. Auen artean Andoain eta Ernaniko adiskide batzuekin itz egin ondoren onera etorri-ta emen bildu giñan gure Parroki zarreko (D. José Aranbarri apaiz jaun agurgarri zanarekin gu iru erritar: Patxi Maritxalar, Iñaki Urkia eta ni. Elkarrekin egindako billeretan eta erri oye-tan asiera emandako pausoak ikusi ondoren erabaki genduan, beste erritan egindakoa gurean ere ezin egiterik etzegoela.

Ekin genion asiera emateko derriorrezko ziran leku eta irak-sle arkitzeari. Lekua azkar billatu genduan, lenengo pausoak emateko beintzat, Etxeberria tar Pio'ren sendiari esker beren etxean bertako alaba Itziarrek beste eskola mota bat emateko



erabiltzen zuan gela utsean emanaz. Irakaslea edo Maestra berriz Idiazabal dar Arantxa izendatu zan. Aurrekin ez genduan buru-austerik izan, aurretik izena emanda genduzkalako. Ona emen beren izenak.

Igone eta Nekane Urkia, Itziar Iriarte, Aurea Sarasola, Lore Erriondo, Idoya Zapirain, Nere Portu, Jone Gallastegi, Itziar Basterrika, Itziar Korta Zulaika, Ana Isabel Koto, Joseba Bengoetxea, Anjel M.<sup>a</sup> Elkano, Iñaki Iragarri, Jesus M.<sup>a</sup> Bagues, Sabiñ Lasa, Joseba Idiazabal, Juan Jose Arozena, Iñigo Mitxelena, Angel Etxeberria, Luis M.<sup>a</sup> Ezeiza, Jon Bengoetxea, Luis M.<sup>a</sup> Getaria, Andoni Otaegi, Xabier Mendiola. Ziur-ziur ez nago baño 20 zirala esango nuke lenen asitakoak, zerrendan agertzen diran alen batzuek geroxeago asitakoak bear dute izan.

Beraz, eskola bat osatzeko bearrezko ziran: Tokia, Irakasle edo Maestra eta Aur edo Ikasleak elkaturik 1963-1964 garenean lenengo ikasturteari asiera eman zitzaion.

Azkar konturatu giñan bai, asi genduan lantegi au etzala beste zenbait jenden gustokua, baño onekin ez giñan batere arritu. Pentzatzen genduan beste aldetik, erriyan ainbeste aur eskola gabe ikusita, iñoren laguntza gabe, beren kontura eskola berri bat iriki zuteneri eragozpenak jartzen astea etzala oso egokia izango.

Dana dala asi genduan lana aurrera zijoan eta Ikastolan artutako aurren gurasoak bilduaz, aurrera jarraitzeko genituan asmo eta bearrak aueri azaldu ondoren ikusi genduan beren laguntza emateko prest arkitzen zirala, orrelabada auen artetik lenengo asitako lau laguneri Sarasola tar Jose Krux alkartu zitzaigun. Geroxeago pentza genduan kursoaren martxa ikusiaz, on izango litzakela Malen pesta aurrean ikasturteari bukaera emateko, aurren-arteko azterketa edo examan antzeko jaitxo bat eratzea.

Irakaslearekin itz egin ondoren jai-aurreko egun bat izendatu genduan. Eskola emandako gela txukundu eta antxe bildu giñan Andereñoa bere ikasleekin, gero D. José apaiz jauna, laguntzalle genituan Aita Domingo eta Boni kaputxinoak, Koldobika Mitxelena euskaltzaiña, Andoni Korta garai artako Zeruko-Argiako izparlari edo korresponsala eta gu laurok.

Urte-buruan aurrak egindako lantxoak ikusi eta Jaun auek egiten ziozkaten galderari ain egoki eta ondo erantzuten zutela ikusirik danok oso pozik gelditu giñan. Gero irten aurretik, bildu ziran aurreri poltzatxo bana goxo banatu ondoren alai eta pozik juntziran lenengo oporketak igarotzera. Gero etorri ziran Jaun aueri gure eskerona agertzearren edo amaiketako txiki bat eman bear gendiolaba eta, gogoan daukat nola Mendarte netik botilla bat ardo-txuri «Diamante» urdai-azpiko takotxo, azeituna eta erdiko kaletik ogi bat artuta eraman genitun. (Bear bada «menú» au emen jartzea uskeri bat izango da, bada kit egokiago izango zela Panier'era edo junda «Comida de Trabajo» edo olakoren bat egitea baño... «invento» auek geroztikakoak dira).

Nola nai ere etzan alperrikakoa izan bertan alkarrekin egin genduan izketaldia. Bukatu zan kursoa aztertu eta ikusi genduan garbi, onek erriyan sortutako giroa ezinda ohea izan zala. Eta au garbi erakusten du, bigarren urterako 60 aurren izenak artuta eukitzeak.

Urrengo arazoa, zorioneko dirua nonbaitetik sortu bearrak ekarri zigun. An bildu giñanen iritsiak jaso ondoren pentza genduan egokiena izango zala erriko euskaltzale eta laguneri eskutitz bat Ikastolaren oñarri eta asmoak garbi azalduz zuzentzea, bazkide edo sozio egiteko erregutu eta ezkatuz. Orrelaba eskutitza egin eta danok izenpetu ondoren 300 nenbat erritarrei bialdu gendizkion.

Gure eskaera au oso ondo artua izan zela esan bearra daukagu. Alen batzuk ez beste guztiak bazkide eginda, beren laguntza ezkeñiaz erantzun zigutelako. Auxe izan zan bada ekin genion lanari aurpegi eman eta sortzen ziran egin bear eta gastuak ordaintzeko, lenengo urte aietan, izan genduan diru aukera.

Auek dira ba gaurko egunean ainbestekoa egin zaigu gure Ikastolaren asierak. Bertan agertzen diran uskeri eta ain uskeri ez diranak ere, oso gogoan eta alaxe gertatutakoak diralako jartzen ditudala eta laster ogei urte beteko dituan Ikastola gallur ontara iristeak garbi erakusten duala, emen agertzen ez diran beste ainbeste lagunek ixillean egindako lan eta ain oparo emandako eskeintzari zor zaiola.

*Bitor Idiazabal*